



Herritarren eta Gizartearen  
Partaidetzarako 2020-2023  
Foru Plana

Jardueren memoria, 2022

## Aurreikusitako jarduerak

Planak, guztira, 14 jarduera biltzen ditu 2020-2023ko epealdian garatzeko, 4 jarduera-ildoren inguruan antolatuta:

1- PARTAIDETZA SUSTATU BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO POLITIKA, PROGRAMA ETA ZERBITZUEN EBALUAZIO ETA JARRAIPENA EGITEKO ORDUAN	2. BIZKAIKO UDALETXE ETA MANKOMUNITATEETAN PARTE HARTZEA SUSTATZEKO BALIABIDEAK GEHITU, BATEZ ERE DIMENSIO BAXUKO TOKIETAN.	3- DIFUSIORA BIDERATUTAKO EKINTZAK BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK SUSTATUTAKO PARTE HARTZE ESPAZIO, KANAL ETA PROZESUAK HERRITARRENTZAT ETA LURRALDEKO ERAGILEENTZAT ESKURAGARRI UZTEKO	4.- PARTAIDETZA BIZKAIAREN GARAPEN JASANGARRIA BERMATZEKO EZINBESTEKOTZAT JOTZEA, EZAGUTZA-PROIEKTU, - SARE ETA -ESPAZIOETAN SUSTATUZ
<p>1.1.- Foru estrategia eta planak egiteko orduan, partaidetza sustatu eta balioetsi.</p> <p>1.2.- Foru araudia egiteko orduan, partaidetza sustatu eta balioetsi.</p> <p>1.3.- Partaidetza organo eta espazio egonkorren funtzionamendua hobetu. Horretarako, organoak eguneratu beharrezkoa denean.</p> <p>1.4.- Aldundiak egindako kontu-ematearen parte-hartzea sustatu.</p> <p>1.5.- Gutxinaka, deliberazio-demokraziarekin lotutako elementu berriak sartu.</p> <p>1.6.- Aldundiko langileei beharrezkoa den trebakuntza eta metodologia baliabideak eskaini, foru- eta erakunde-sailek partaidetza eguneroko kudeaketan txertatzeko lanean sakontzen jarrai dezaten.</p>	<p>2.1.- BiscayTIK-en laguntzarekin baliabide teknologiko berriak garatu udaletxe eta mankomunitateen eskura jartzeko, eta, ondorioz, parte hartzea eta gobernu irekia sustatzeko.</p> <p>2.2.- Bizkaiko mankomunitateek eta udaletxeek bultzatutako partaidetzan laguntzeko elkarlan lan lerro bat ezarri.</p> <p>2.3.- Bizkaiko erakunde lokalei zuzendutako partaidetza eta gobernu irekiari buruzko trebakuntza eta lankidetzak jarduerak antolatu.</p>	<p>3.1.- Bizkaiko Foru Aldundiko Partaidetza Ataria eguneratu eta hobetu.</p> <p>3.2.- Etengabe eguneratu parte hartze kanalak biltzen dituen Partaidetza Mapa eta, horrez gain, urtero egindako jarduera nagusiak eta haien eragina biltzen dituen Memoria bat idatzi.</p> <p>3.3.- Foru araudiari lotutako partaidetza prozesuen egutegi bat sortu eta ezagutzera eman.</p> <p>3.4.- Bizkaitarren Sarea indartu Bizkaiko herritarrei partaidetza eta gobernu irekiaren berri emateko baliabide gisa erabiltzeko.</p>	<p>4.1.- Partaidetza eta gobernu ireki estrategia ezarri, plan eta erakunde arteko sareetan parte hartu Partaidetza Eredua sakontzeko eta Bizkaia partaidetza erreferente gisa ezartzeko.</p>

## 1.1 Ekintza

### Foru estrategia eta planak egiteko orduan, partaidetza sustatu eta balioetsi

#### HELBURUA

Foru-estrategia eta -planak idazteko orduan, herritarren eta gizartearen parte hartzea handitzea eta partaidetzaren garrantzia azpimarratzea prozesu horiei dagokienez.

#### 2022an GAUZATUTAKO JARDUERAK

Foru-estrategiak eta foru-planak funtsezko tresnak dira Bizkaiko gizartearen beharrei eta lehentasunei erantzungo dieten politikak diseinatzeko.

Plangintza-tresna hauek gehienetan sektore-eragile nabarmenen parte-hartzea jasotzen dute dagoeneko, gizarte-partaidetzarako egun dauden organoen bitartez, baina egokitzat jotzen da herritarren iritzia prozesu horietan txertatzea, bai eta partaidetzaren balioa nabarmentzea futsezko elementu gisa, bai foru-planen eta- estrategien diseinurako bai horien gobernantzarako.

2022an honako partaidetza-prozesuak nabarmendu ditzakegu, foru-plan eta -estrategiei dagokienez:

- Bizkaia Digital 2025 plan estrategikoa.
- 2030erako Bizkaiko Toki Eskumeneko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plan Integrala. Kasu horretan, Bizkaiko udal eta mankomunitateen mailako parte-hartzea egin zen.
- BFAren Energia Jarduerarako Plan Orokorra 2023-2030.

## 1.2 Ekintza

### Foru araudia egiteko orduan, partaidetza sustatu eta balioetsi

#### HELBURUA

Foru Araudia lantzeko orduan, herritarren eta gizartearen parte hartzea handitzea eta partaidetzaren garrantzia azpimarratzea prozesu horiei dagokienez.

#### 2022an GAUZATUTAKO JARDUERAK

Foru-araugintza jarduera garrantzitsua da Bizkaiko gizartearentzat, arauen garrantziagatik, bai eta herritarren eta gizartearen partaidetzarako lehentasunezko esparruetako bat ere. Lehenengo eta behin, araugintza-prozesuaren derrigorrezko fasea delako. Eta, bigarrenik, Bizkaiko Foru Aldundian uste dugulako herritarren eta Lurraldeko eragile nabarmenen iritzia eta proposamenak jasotzea behar-beharrezkoa dela, foru-aurauen prestaketak ikuspuntu guztiak sartu ditzan eta azken emaitza aberatsa izan dadin.

Aldundiak Urteko Araugintza Plana egiten du urtero, jendaurrean ezagutarazteko zer arau egin eta onartzeko proposatzeko asmoa dagoen, hain zuzen ere, edonork jakin dezan zer arau egingo diren eta zein epetan, eta, horrela, arauaren prestaketan parte hartzeko duen eskubidea balia dezan.

2022an Urteko Araugintza Planaren aurreikuspena zen aurretiko kontsulta publikoko 30 prozesu eta entzunaldi eta informazio publikoko 40 egitea. Azkenean, aurretiko kontsulta publikoko 41 prozesu eta entzunaldi eta informazio publikoko 60 egin ziren.

Badago foru-araugintzako prozesuetan parte hartzeari buruzko informazioa jasotzeko harpidetza egiteko aukera: Harpidetza-formularioa

Informazio gehiago: <https://www.bizkaia.eus/eu/araudi-garapenaren-partaidetza-prozesuak>

## 1.3 Ekintza

Partaidetza organo eta espazio egonkorren funtzionamendua hobetu. Horretarako, organoak eguneratu beharrezkoa denean

### HELBURUA

Organo eta espazio horiek etengabe hobetzea, Bizkaiko erronkei aurre egiteko ahalik eta erabilgarrienak izan daitezzen. Prozesu horretan, organoak eguneratu behar dira, Bizkaia jasangarri baten alde lan egiteko sor daitezkeen behar edo erronkei erantzuna emateko.

### 2022an GAUZATUTAKO JARDUERAK

2020an eta 2021ean prestakuntzarako eta garapen metodologikorako jarduerak garatu dira, foru-langileek arlo horretan behar besteko gaikuntza eduki dezaten.

2022an ez da inolako jarduerarik egin esparru horri lotuta.

## 1.4 Ekintza

### Aldundiak egindako kontu-ematearen parte-hartzea sustatu

#### HELBURUA

Aldundiak kontu-emateari lotuta antolatutako topaketa eta jardueren parte-hartzean sakontzea.

#### 2022an GAUZATUTAKO JARDUERAK

2022ko urritik 2023ko urtarrilera bitartean, kontuak emateko 8 topaketa egin dira, "Topaketa Bizkairekin" izenpean, eta ikuspuntu bereziki parte-hartzailea izan dute

Guztira, 298 pertsonak hartu dute parte, 36 lan-taldetan banatuta.

Informazio gehiago: <https://www.bizkaia.eus/eu/topaketak-bizkairekin-2022-2023>

## 1.5 Ekintza

Gutxinaka, deliberazio-  
demokraziarekin lotutako  
elementu berriak sartu

### HELBURUA

Partaidetzari dagokionez, prozesua berritzen eta sakontzen jarraitzea eta banaka parte hartzen duten herritarrei garrantzia handiagoa ematea.

### 2022an GAUZATUTAKO JARDUERAK

Maiatzaren 21ean Eztabaida Foro bat egin zen Bilboko Euskalduna Jauregian, Bizkaiko Foru Aldundiko Herritarren Arretarako Zerbitzua hobetzeko, erakundeak antolatutako lehenengo eztabaida Foroa, hain zuten. Guztira, Bizkaiko hainbat eskualdetako eta hainbat adin eta hezkuntza-profiletako 38 pertsonak (19 emakumek eta 19 gizonek) hartu zuten parte Foro horretan.

Parte-hartzaileek 22 gomendio adostu zituzten, eta, ondoren, Herritarren Arretarako Zerbitzuak aztertu zituen:

- Bideragarritzat jo zuten 19 gomendio hartzea, erabat edo partzialki, eta, horiek gauzatzeko, BFAk konpromiso zehatzak ezarri zituen.
- 3 gomendioren kasuan, hartzearen bideragarritasuna txikitzat jo zuten arrazoi teknikoengatik. BFAk ez zuen konpromiso zehatzik hartu gomendio horiek gauzatzeko, baina, kasuren batean, zerbitzuaren beharren jarraipena egiteko konpromisoa hartu zuen Aldundiak, etorkizunean gomendio hori gauzatzeko komenigarria balitz ere.

Horrez gain, 2023ko urrian BFAk konpromisoa hartu zuen bere gain hartutako 19 gomendioak ezartzeari buruzko txosten bat egin eta jendaurrean zabaltzeko, gomendio horiek zein neurritan ezarri diren jakiteko.

Informazio gehiago: <https://www.bizkaia.eus/eu/eztabaida-foroa>

## 1.6 Ekintza

Aldundiko langileei beharrezkoa den trebakuntza eta metodologia baliabideak eskaini, foru- eta erakunde-sailek partaidetza eguneroko kudeaketan txertatzeko lanean sakontzen jarrai dezaten

### HELBURUA

Beharrezko trebakuntza eta metodologia baliabideak handitzea Aldundiko langileek partaidetza sustatu dezaten.

### 2022an GAUZATUTAKO JARDUERAK

Aurreko ekitaldietan, partaidetzari eta gobernu irekiari buruzko prestakuntza-programa bat, Aldundiko langileen premietara egokituta, egituratzeko eta emateko lan egin zen, eta haien prestakuntza-ibilbidean integratu da. 2020ko azarotik 2021eko urrira bitartean, Aldundiko 2.000 langilek baino gehiagok jaso zuten prestakuntza hori, zeina ikus-entzunezko formatuko 10 prestakuntza-pilularen bidez garatu zen. Pilulok gaur egun eskuragarri daude oraindik. Atarilekun, Aldundiko langileen barneko atarian.

Horrez gain, sakontze-ekintza bat diseinatu da (Sailtako Tailerrak), prestakuntza teoriko-praktikoko ekintza gisa sortua. Bertan, partaidetza-prozesu bat diseinatuko da lankidetzan. Halaber, “ Bizkaiko Foru Aldundian partaidetza sustatzeko gida metodologikoa” idatzi da, Foru Sailek bultzatzen dituzten partaidetza-prozesuen diseinua, gauzatzea eta ebaluazioa errazteko helburuz.

Tresna horiek 2023-2027ko foru-agintaldian hasiko dira hedatzen.



## 2.1 Ekintza

BiscayTIK-en laguntzarekin baliabide teknologiko berriak garatu udaletxe eta mankomunitateen eskura jartzeko, eta, ondorioz, parte hartzea eta gobernu irekia sustatzeko

### HELBURUA

Bizkaiko erakunde lokalen esku jartzea baliabide komun eta mankomunatuak partaidetza eta gobernu irekia sustatzeko herri eta eskualde mailan.

### 2022an GAUZATUTAKO JARDUERAK

Baliabide teknologikoak ezinbestekoak dira partaidetza sustatzeko eta horri eta gobernu irekiari buruzko informazioa emateko. BiscayTIK-ek baliabide teknologikoen bidez emandako laguntzari esker, Bizkaiko erakunde lokal askok konponbide zuzenak lor ditzakete eta, horrez gain, dirua aurrez dezakete baliabide teknologikoak mankomunatuak direlako.

Arlo honetako aurrerapen nagusi moduan, nabarmentzekoa da BiscayTIKek agintaldi-planen kontuak emateko garatu duen soluzioa, OGP Euskadi ekimenaren bitartez zehatutako metodologiatik abiatuta. Aplikazio horrek aukera ematen die udalei modu irekian kontuak emateko Agintaldi Planean hartutako konpromisoak betetzean egindako aurrerapenei buruz.

## 2.2 Ekintza

Bizkaiko mankomunitateek eta udaletxeek bultzatutako partaidetzan laguntzeko elkarlan lan lerro bat ezarri

### HELBURUA

Udaletxe txikien eta Bizkaiko mankomunitateen eskura jartzea partaidetza jarduerak bultzatzeko zerbitzu eraginkorrak.

### 2022an GAUZATUTAKO JARDUERAK

Bizkaiko Foru Aldundiak 250.000 euroko laguntza-lerro bat abiarazi zuen otsailean, udalek eta mankomunitateek 2022ko ekitaldian sustatutako herritarren eta gizartearen partaidetza-prozesuak babesteko. Ekimen horren lehenengo edizioa izan zen.

#### [2022rako laguntzen deialdia](#)

38 toki-erakundek (37 udal eta mankomunitate 1) jaso zuten dirulaguntza. Hona hemen banaketa:

- 29 proiektu, udalen edo/eta mankomunitateen garapen jasangarrirako garrantzitsuak ziren herritarren eta gizartearen partaidetza-prozesuak garatzeko.
- 8 proiektu, herritarrek eta gizarteak parte hartzeko espazio eta organo formalak sortzeko, biziberritzeko eta hobetzeko.

#### [2022rako laguntzen ebazpena](#)

Abenduan abiatu zen 2023an garatzekoak ziren partaidetza-proiektuak babesteko laguntza-lerroaren bigarren deialdia, eta 300.000 euroraino handitu zen.

#### [2023rako laguntzen deialdia](#)

## 2.3 Ekintza

Bizkaiko erakunde lokalei zuzendutako partaidetza eta gobernu irekiari buruzko trebakuntza eta lankidetzak jarduerak antolatu

### HELBURUA

Herri eta eskualde mailan lan egiten duten tekniko eta politikoak trebatzea.

#### 2022an GAUZATUTAKO JARDUERAK

2022an ez da jarduerarik egin.

## 3.1 Ekintza

### Bizkaiko Foru Aldundiko Partaidetza Ataria eguneratu eta hobetu

#### HELBURUA

Bizkaiko Foru Aldundiko Partaidetza Ataria eguneratzea eta hobetzea, Bizkaiko parte hartzearen errealitatea ezagutarazteko eta partaidetza eskubidea erabiltzeko parte hartze kanal eta prozesuetara heltzeko.

#### 2022an GAUZATUTAKO JARDUERAK

Partaidetza Ataria etengabe eguneratzen da.

2022an, “Dirulaguntzak” atal berria sartu da.

## 3.2 Ekintza

Etengabe eguneratu parte hartze kanalak biltzen dituen Partaidetza Mapa eta, horrez gain, urtero egindako jarduera nagusiak eta haien eragina biltzen dituen Memoria bat idatzi

### HELBURUA

Jarduera honen bidez, partaidetza kanal egonkorrak herritarrengana hurbildu nahi dira, horien lana ezagutzera emateko eta, partaidetza prozesu berezien bidez, parte hartzeari esker lortutako eraginaren berri emateko.

### 2022an GAUZATUTAKO JARDUERAK

Mapa etengabe eguneratzen da.

2022an ez da aldaketarik egon parte hartzeko organo, espazio eta kanalei dagokienez.

## 3.3 Ekintza

Foru araudiari lotutako partaidetza prozesuen egutegi bat sortu eta ezagutzera eman

### HELBURUA

Herritarren partaidetza bultzatzea foru araudia lantzeko prozesuetan.

### 2022an GAUZATUTAKO JARDUERAK

Foru-araugintza jarduera garrantzitsua da Bizkaiko gizartearentzat, arauen garrantziagatik, bai eta herritarren eta gizartearen partaidetzarako lehentasunezko esparruetako bat ere. Lehenengo eta behin, araugintza-prozesuaren derrigorrezko fasea delako. Eta, bigarrenik, Bizkaiko Foru Aldundian uste dugulako herritarren eta Lurraldeko eragile nabarmenen iritzia eta proposamenak jasotzea behar-beharrezkoa dela, foru-aurauen prestaketak ikuspuntu guztiak sartu ditzan eta azken emaitza aberatsa izan dadin.

Aldundiak Urteko Araugintza Plana egiten du urtero, jendaurrean ezagutarazteko zer arau egin eta onartzeko proposatzeko asmoa dagoen, hain zuzen ere, edonork jakin dezan zer arau egingo diren eta zein epetan, eta, horrela, arauaren prestaketan parte hartzeko duen eskubidea balia dezan.

2022an Urteko Araugintza Planaren aurreikuspena zen aurretiko kontsulta publikoko 30 prozesu eta entzunaldi eta informazio publikoko 40 egitea. Azkenean, aurretiko kontsulta publikoko 41 prozesu eta entzunaldi eta informazio publikoko 60 egin ziren.

Badago foru-araugintzako prozesuetan parte hartzeari buruzko informazioa jasotzeko harpidetza egiteko aukera: [Harpidetza-formularioa](#)

[2022ko Urteko Araugintza Plana](#)

[2022ko Urteko Araugintza Plana betetzeari buruzko txostena](#)

## 3.4 Ekintza

Bizkaitarren Sarea indartu  
Bizkaiko herritarrei  
partaidetza eta gobernu  
irekiaren berri emateko  
baliabide gisa erabiltzeko

### HELBURUA

Pertsona eta erakunde gehiago bultzatzea parte hartzera.

### 2022an GAUZATUTAKO JARDUERAK

2022an kanpaina bat egin da Bizkaitarren Sarean parte hartzeko interesa duten pertsona gehiago batzeko; horri esker, 6.500 pertsonak baino gehiagok hartu dute parte sarean.

4 newsletter egin dira, martxoan, ekainean, irailean eta abenduan, hain zuen. Newsletter horiek Bizkaitarren Sarean parte hartzen duten pertsonen helarazten zaizkie.

[Bizkaitarren Sarearen kide egiteko formularioa](#)

Bizkaitarren Sarea Herritarren Arretarako Zerbitzuari buruzko Eztabaida Foroa osatzeko erabili da.

## 4.1 Ekintza

Partaidetza eta gobernu ireki estrategia ezarri, plan eta erakunde arteko sareetan parte hartu  
Partaidetza Eredua sakontzeko eta Bizkaia partaidetza erreferente gisa ezartzeko

### HELBURUA

Bizkaiko Eredua irekia izatea lortzea, etengabe hobetuz eta jarduera onei probetxua ateraz, beste erakunde eta lurralde batzuekin batera lan eginez.

### 2022an GAUZATUTAKO JARDUERAK

Bizkaiko Foru Aldundiak aktiboki hartzen du parte Euskadin gobernu irekian aurrera egiteko Erakundeen arteko II. Planean (OGP Euskadi 2021-2024 Ekintza Plana), zeina Gobernu Irekirako Nazioarteko Aliantzaren kide gisa egin baita.

Herritarrekin batera egindako plana da, gaitasun eraldatzaile duten 5 konpromiso barne hartzen dituena. Konpromiso horiek gizarte zibilarekin lankidetzan eta erakundeen arteko hiru mailaren artean modu koordinatuan gauzatu behar dira, gobernu irekiko funtsezko erronkei erantzuna emateko.

Bizkaiko Foru Aldundia Planaren talde sustatzaileko kide da, hauekin batera: Eusko Jaurlaritza, Arabako eta Gipuzkoako Aldundiak, Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Udalak, eta Innobasque-Berrikuntzarako Euskal Agentzia.

[Euskadi 2021-2024 Ekintza Planari buruzko informazio gehiago](#)